

SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAK 2016ko AZAROAREN 24an EGINDAKO BILERAREN AKTA

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan, arestian aipatutako eguneko hamabi eta hogeita hamahiru minutu direla, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde zuzenetik aurretik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

KONTSEILUBURUA:
Danel Bringas Egilior jn.

KONTSEILUKO KIDEAK:
Cristina Senarriaga Rojo and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.
Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.
Daniel Urkiaga Alberdi jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea.
Endika García Saez jn., Bildu Udal Taldea.
Pedro Miguel Lucena Balda jn., Euskal Sozialistak Udal Taldea.

Zuzendaria: Carlos Moran Arostegi jn.
Kontu-hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.
Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.
Komunikazio arduraduna: Margarita Olabarrieta Sobera and.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

1.- Serantes Kultur Aretoaren aurrekontuaren proiektuari buruzko informazioa 2017ko ekitaldirako

Kontseiluburu jaunak adierazi du puntu honetan aurrekontuaren proiektuari buruzko informazioa emango dela eta gero berau onartzeko izapidea egingo dela Udalean aurkezteko. Ildo horretan gaineratu du SKAren asmoa berrikuntza handirik ez egitea dela eta orain arte bezala, bere gain hartzea egin ohi diren ekitaldi eta aurrekontuak. Bringas Egilior jaunak azpimarratu du I. kapituluaren aldaketa bat egongo dela, pertsona bat sei hilabetez kontratatuko baita metatutako lana aurrera ateratzen lagundu dezan. Horrez gain, esan du II. Kapituluaren gastua izoztu egin dela, izan ere, %0.94ko igoera baino ez da egongo. Horiez guztiez gain, jakinarazi du IV. Kapituluaren jaitziera egon dela 2017an ez delako San Jorge parrokiako organoa konpontzeko kontu-sailik esleitu behar. Azkenik, esan du aurrekontuetan ez dela inbertsioen kapitularako inongo gasturik ezarri.

Lucena Balda jaunak hitza hartu du Kultura Jardueretarako kontu-sailaz galdetzeko, %17 egin baitu behera. Horren harira, Garcia Saez jaunak galdetu du ea zertarako erabiliko den kontu-sail hori.

Bringas Egilior jaunak aipatutako jaitzieraren arrazoia azaldu du esanez arrazoiak bi izan direla. Batetik, uste izan dute momentuz ez zela

egokia arrantza portuko murala egiten jarraitzea eta bestetik, Casa Torre jauregian egiten diren erakusketa kopurua ere jaitsi egin da.

Moran jaunak Garcia Saez jaunak egindako galderari eman dio erantzun esanez kultura-jardueretarako bideratzen den kontu-saila mota askotakoa dela. Jakinarazi du zein diren kontu-sail horrek biltzen dituen jarduerak, hurrengo hauek hain zuzen: 25.000€ Sardinera Egunerako, 60.000€ Musika Bandarekin kontratatzen diren ekitaldietarako, 10.000€ Inauterietarako, 12.350€ Erregeen Kabalgatarako, 3.041€ Casa Torre jauregiko jardueretarako, 5.000€ Casa Torre jauregian egiten diren erakusketarako, 5.000€ ezusteetarako eta 21.000€ Abesbatzen Topaketarako. Azken batean, mota guztietako jarduerak burutzeko.

Lucena Balda jaunak galdetu du ea zergatik egin duen %7 behera IV. Kapituluako diru-laguntzen kontu-sailak, 2016an 14.000 € baitziren eta aurten 13.000 €.

Bringas Egilior jaunak erantzun dio esanez akats bat egon dela, zenbatekoari eutsi zaió eta. Jakinarazitakoaren arabera, iazko kopurua da txarto dagoena, 13.000€ izan ziren eta, ez 14.000.

Garcia Saez jaunak galdetu du ea zergatik egin duen gora 22.66.900 kontu-sailak.

Bringas Egilior jaunak esan dio kontu-sail horri benetako balioa baino gutxiago balioetsi zitzaioela eta horregatik, erabilitako diru kopuruan oinarritu direla aurtengo esleipena egiteko.

Urkiaga Alberdi jaunak galdetu du ea telefonia kontratu guztiei eutsiko zaien, gaur egun eskaintza handia dagoelako eta hortaz, tarifa egokia aukeratzeak prezioa jaitsi lezakeelako.

Paredes Cisneros jaunak azaldutakoaren arabera, telefono finko eta sakelakoak bateratzeko proiektu bat dago abian, makrokontratuaren bidezkoa hain zuzen. SKA Udalaren zentralitaren barruan dagoenez, berari ere eragingo lioke. Orain izapidea egitearen zain daude.

2º.- Serantes Kultur Aretoaren aurrekontuaren proposamena eta onespena, hala badagokio, 2017ko ekitaldirako.

Kontseiluburu jaunak gaiaren bozketa abiatu du. Eusko Alderdi Jeltzalea Udal Taldeak (EAJ/PNV) baiezko botoa eman du, Si Se Puede Santurtzi, BILDU eta Euskal Sozialistak (PSE-EE-PSOE) Udal Taldeek, berriz, abstentzioa aurkeztu dute. Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluak hurrengo hau ADOSTU DU:

Lehenengoa.- Onartzea Santurtziko Udaleko Serantes Kultur Aretoa Autonomiadun Erakundeak 2017ko ekitaldirako prestatutako aurrekontua, **BI MILIOI ZAZPIEHUN ETA HAMAR MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA**

BOST euroko zenbatekoa bera (2.710.465,00€), bai eta horren barruko oroi-txostena, ohiko transferentziadun eranskina eta Barne Araubide Arloak helarazitako eranskina ere, non Autonomiadun Erakundearen lantaldea osatzen duten lanpostuen zerrenda eta bakoitzari dagokion ordainsaria agertzen diren.

Bigarrena.- Honako erabaki honen berri Santurtziko Udaleko Kultura eta Euskara eta Ogasun eta Ekonomia Sustapeneko arloei ematea.

Horrela bada, gai-zerrendaren hurrengo gaia jorratzen hasi dira.

3.- Kultura eta Euskara arloari Serantes Kultur Aretoko lantaldearen plantilla eta lanpostuen zerrendaren proposamena eta irizpena egitea eta berau igortzea.

Kontseiluburu jaunak hitza hartu du jakinarazteko arestian aipatu bezala, %6ko igoera baino egon ez dela langile bat sei hilerako kontratatu delako, administrazio-lanean laguntza eman dezan.

Beste parte hartzerik egon ez denez, Kontseiluburu jaunak gaiaren bozketa abiatu du. Eusko Alderdi Jeltzalea Udal Taldeak (EAJ/PNV) baiezko botoa eman du, Si Se Puede Santurtzi, BILDU eta Euskal Sozialistak (PSE-EE-PSOE) Udal Taldeek, berriz, abstentzioa aurkeztu dute. Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluak hurrengo hau ADOSTU DU:

Lehenengoa.- Behin-behinean onartzea Santurtziko Udaleko Serantes Kultur Aretoa Autonomiadun Erakundearen lantaldearen plantilla eta lanpostuen zerrenda 2017ko ekitaldirako.

Bigarrena.- Honako erabaki honen berri Santurtziko Udaleko Kultura eta Euskara Sustapeneko arloan aurkeztea eta horrekin batera, Serantes Kultur Aretoa 2017ko ekitaldirako izango duen lantaldearen plantilla eta lanpostuen zerrenda ere igortzea.

Beste gairik izan ez denez, Kontseiluburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran zehaztutako egunean, eguerdiko ordu bata laurden gutxi direnean. Eta nik, Idazkari Eskuorde naizen honek, hau guztiau ZIURTATU egiten dut.